

2024/2025 IKASTURTEA. IZENA EMATEKO ORIENTABIDEAK



1.- Eskabide berrietarako izena emateko epea: maiatzaren 15etik 31ra arte.

2.- Matrikula online, www.getxo.eus

- ✓ Matrikula orria jaitsi eta bete derrigorrezkoak diren datu guztiak.
- ✓ Aukeratu 2024/2025 ikasturterako nahi dituzun irakasgaiak. Hiru musika-tresna aukera ditzakezu, Gorde PDFa eta bidali matrikulak@getxo.eus e-mailera.

Aste bete pasata ez baduzu jaso zure posta elektronikoan inskripzioaren frogagiria, jarri gurekin harremanetan 944. 646. 011 / 22 telefono zenbakietan.

3.- Oharrak:

- ✓ Matrikulazioa behin betikoa bihurtuko da eskolen ordutegia onartu ondoren.
- ✓ Plaza libreen esleipena zozketa publiko baten bidez egingo da; eskatzaileak, sartu ahal izateko, honen emaitzaren arabera ordenatuko dira.
- ✓ Zozketa izan baino 48 ordu lehenago, zerrendak publikoki argitaratuko dira (bai www.getxo.eus web-orrian baita Musika Eskolako iragarki-tauletan ere) egin beharreko zuzenketak egin ahal izateko.
- ✓ Getxon erroldatutako eskatzaileek dute lehentasuna sartzeko unean.
- ✓ 4 eta 5 urteko umeak, 2019 eta 2020an jaioak, Musika eta Mugimenduan inskribatuko dira.
- ✓ 6 urteko umeak, 2018an jaioak, Musika eta Mugimenduan eta Harrerakoan inskribatuko dira.
- ✓ 7 urteko umeak, 2017an jaioak, Musika-Hizkuntza eta Harrerakoan inskribatuko dira.
- ✓ 7 urte baino gehiagokoentzat, derrigorrezkoa da musika-tresna aukeratzea. Hiru adierazi daitezke, lehentasunez ordenaturik, kasu guztietan plazak ezin baitira bermatu. Musika-tresna huetatik **bakarra aukeratu** daiteke: **Pianoa-Gitarra-Perkusioa**
- ✓ Musika-tresnaz aparte, nahi adina irakasgai aukera daitezke. Aurretiko ezaguera musikalik eduki ezean, nahitaezkoa duzu Musika-Hizkuntzan inskribatzea.
- ✓ 14 urtetik beherakoek izango dute lehentasuna musika-tresna aukeratzeko.
- ✓ Harremanetarako e-mail bat eta telefono mugikor baten zenbakia behintzat jarri beharko dira, behar izanez gero, zurekin harremanetan jarri ahal izateko.

- 4.- Bizi Proiektua:** Getxoko Musika Eskolak euskara eta gaztelaniaren elkarBIZItzarako Bizi Proiektuarekin bat egin du.
- 5.- Ikasleak egoitza bietan kokatzeko irizpideak:** Ikasle guztiek ikasiko dute, **ahal den neurrian**, euren etxetik hurbilen dagoen eskolan. Espezialitatea, egoitza bakarrean ematen den kasuetan izan ezik.
- 6.- Harrerakoa:** 6 eta 7 urteko ikasleek Harrerakoa irakasgaien ere egin beharko dute inskripzioa. Irakasgai hau 5 ostiraletan emango da ikasturtean zehar; kontzertu didaktikoak izango dira, horren ostean tailer saio batzuk izango dira eta bertan ikasleek aipatutako kontzertuko tresnak ezagutu eta probatuko dituzte.

7.- Tasak:

Matrikula	31,50 €
Musika-tresna eta kantua	368,55 €(40,95€/ hilero)
Harrerakoa.....	47,25€ (5,25€/hilero)
Irakasgai kolektiboak (Musika eta Mugimendua, Musika-Hizkuntza, Orkestra, Banda, Abesbatza, Ganbera-taldea, Fanfarrea, Konboa, Ahots-teknika...)	207,90€ (23,10€/hilero)
Musikoterapia	468€ (52 €/hilero)

- Matrikula, plaza eta ordutegiak baieztatu ondoren ordainduko da. Matrikularen zenbatekoa **ez** da itzuliko.
- Tasen ordainketa 9 hilekotan banatuko da urritik ekainera.
- Getxoko udalerrian erroldatuta ez dauden ikasleek tasetan %50 gehiago ordainduko dute.
- [Datu pertsonalen tratamendua](#)**